



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko azaroaren 10a

96. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da oinarrizko osasun laguntzako medikuen aldarrikapenak aintzat har ditzan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, Comptos Ganberaren kudeaketarekiko konfiantza berresteko. Eledunen Batzarrek onetsia (18. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Comptos Ganberak Gizarte Ongizate Departamentuari buruzko txostenean sartu eta Nafarroako Gobernuaren eledunak aipatu dituen balorazio politiko eta pertsonalei buruzkoa, foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Comptos Ganberaren objektibotasuna zalantzan jartzeko dituen datuei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (19. or.).
- Galdera, tratu txarrak jasan dituzten emakumeak babesteari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (20. or.).
- Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Iruña-Jaka autobideko Ledea aldeko behin betiko trazaduraren inguruan egindako proposamenari buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (21. or.).
- Galdera, NUPeko prezioak ezarri dituen ekainaren 20ko 129/2006 ebazpena Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak eta ez Hezkuntza kontseilariak eman izanari buruzko arrazoiak zein diren jakiteko, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egina (21. or.).

- Galdera, Uharte, Egues eta Esteribarko bigarren hezkuntzako eskariari erantzuteko Hezkuntza Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin [\(23. or.\)](#).
- Galdera, Uharteko arte garaikideko zentroa eraikitzeko eta kudeatzeko finantziaketari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin [\(23. or.\)](#).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak bidezainen etxeak izenekoetan egindako jarduketei buruzkoa, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egin [\(24. or.\)](#).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2006ko urriaren 23an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun baliouduneko epea hasiko da eta 2006ko azaroaren 30eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

1

1990eko abenduan onetsi zenez geroztik, Nafarroako oihan ondarea arautzen duen 13/1990 Foru Legea arau-marko eraginkorra izan da oiharen arlorako, eta mendietako baliabideen aprobetxamendu arrazoizkoa eta haien babes baterratzeko bide eman du.

Aitzitik, une honetan, hainbat arrazoi direla eta, arau hori egungo errealitatera egokitzea komeni da, zenbait agindu zehatz aldatuz, baina aldi berean arau horren mami nagusiaren balioa berretsiz.

Legeak indarra hartu zuenetik denbora luzea iragan da, eta tarte horretan aldaketa handiak gertatu dira mendietan eta haien baliabide, ondasun eta zerbitzu materialez eta ez-materialez baliatu eta gozaten den gizartean. Aprobetxamendu desberdinen garrantzia ere aldatzen joan da, eta oihan jabeen ekonomietan eragin nabarmena izan dute gorabehera horiek. Era berean, jabe horiek, bai pribatuak bai publikoak, oihan ingurunearen kudeaketari begira duten erantzukizunaz jabetzen joan dira, eta haien mendiei eragiten dieten erabakietan inplikazioa handiagoa izan dadila eskatzen.

Foru Parlamentuak 1998ko azaroan onetsi zuen Nafarroako Basoei buruzko Planean, jada, aurreko guztiari buruzko hausnarketa islatu zen, baita araudi indarduna egokitu beharra zegoela adierazi ere.

Bestalde, Estatuak Mendiei buruzko 2003ko azaroaren 21eko 43/2003 Legea onetsi zuen, ingurumenaren eta mendien babesari eta oihan aprobetxamenduei buruzko oinarritzko legeriaren arloan Estatuak dituen eskumenez baliatuz. Ondoren, lege horren zenbait artikulua aldatu ditu apirila-

ren 28ko 10/2006 Legeak, Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legea aldatu duen horrek.

Hortaz, beharrezkoa da foru araudia Estatukora egokitzea mendi pribatuaren arloan. Horrez gain, komeni da mendi publikoen arloko foru araudia Estatuko araudiarekin nolabait ere bat etortzea.

Horregatik guztiagatik, eta oihan administrazioak 13/1990 Foru Legea aplikatu den denboran kudeaketaren arloan bildutako esperientzia ere aintzat hartuta, komenigarria da oihanen arloko foru legeriaren aldaketa egitea, zati zehatz batean.

2

Foru lege honen alderdi adierazgarrienei dagokienez, aldaketaren asmoa zenbait definizio oinarritzko araudira moldatzea da, hala nola mendiarena edo oihan lurrarena, mendi pribatuarena eta oihan aprobetxamenduarena; horrekin batera, oihan eta ingurumen eskumenak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari atxiki zaizkio.

Mendi katalogatuen kasuan, estatuko araudiarekin bat, onura publikoko mendien oinarritzko ezaugarriak definitu dira, hau da, alienaezinak, preskribaezinak eta enbargaeezinak direla, eta haien titularitatea kargatuko duen ezein tribututatik salbuetsirik daudela. Mendi katalogatuetan gauzatu beharreko plan edo proiektuen onura publikoko deklarazioak arautu dira.

Foru lege hau naturguneetan dauden mendiak oihan arloan arautuko dituen markoa izanen dela ezarri da, eta aldi berean zehaztu oihan kudeaketarako tresnetan jaso beharko dela, mendi horientzat, naturgune babestu gisa duten araudi berarizkoan ezarritakoa.

Era berean, Foru Komunitateak eta toki entitateek oihan finkak lehentasunez erosteko dituzten eskubideak arautzen dira.

Ibaietako oihan esparrua babestu eta lehengoratzeko xedeaz, natur ibilguetako inguruneen babesa ezarri da, proiektu publikoen eta erabilera aldaketen arloan.

Suteei dagokienez, herritar orok oihaneko suteen berri eman behar dutela ezartzen da. Sutea sortzeko arriskua dakarten jardueri buruzko erregelamenduzko arauak ere zehaztu dira. Suteari aurrea hartzeko araubideari buruzko arau berriak ezarri dira, bai eta arautu ere oihan lurretan eta lehorreko landa-lurretan.

Oihan aprobetxamenduei dagokienez, arau marko berri bat ezarri da, titularitate publikoaren

edo pribatuaren arabera, eta oihan antolakuntzako proiektua edo kudeaketarako plan teknikoa izan ala ez kontuan harturik. Arau horien artean, xedapen batzuk ezarri dira aprobetxamenduen besterentzea azkartzeko, hala nola baldintza teknikoetik kanpo uztea aprobetxamenduaren balorazio ekonomikoa eta besterentzeko modua.

Oihan jarduerarako laguntzen esparruan, aukea ezartzen da zenbait ekintza oihan administrazioak nahiz mendien titularrek, dirulaguntzak eskuratuz, gauzatu ditzaten: suteen kontrako oihanzaintza prebentiboa, zuhaitziaren azalera handitzea babesteko xedeaz, edo mendien biodibertsitatea hobetzea.

Azkenik, zehapen araubideari buruzko V. titulua aldatu da, oihan arloan arau-hausteak eta zehapenak eguneratzeko.

Xedapen gehigarri bakarrean, aspaldian, 1923ko eta 1954ko laguntza oinarrien babesean eginiko basoberritzei dagokienez, oihan titularren eta jabeen zorrak barkatu dira.

Aurreko guztiagatik, Nafarroako Foru Komunitateak mendien arloan dituen eskumenez baliatuz, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 50.1.e) eta 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen aldaketa hau onetsi du.

Artikulu bakarra. Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legeak aldaketa hauek izanen ditu:

Bat. 4. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letra aldatu da, eta e) letra berria gehitu zaio. Hauxe izanen da testua aurrerantzean:

“d) Berez birsortzen diren larreak, idoiak eta zoikaztegiak.

e) Mendiaren kudeaketarako eta erabiletarako eraikinak eta azpiegiturak.”

Bi. 5. artikulua aldatu da, eta aurrerantzean hauxe izanen da testua:

“5. artikulua.- Mendien sailkapena.

1. Mendiak, jabetzaren arabera, publikoak edo pribatuak izanen dira.

2. Mendi publikoak Estatuarenak, Nafarroako Foru Komunitatearenak, toki entitateenak eta oro

har Nafarroako edozein entitate administratiborenak dira. Publikoak izanen dira, halaber, baldin eta haien jabari erabilgarria, osorik edo zati batean, entitate administratibo batena bada, nahiz eta zuzeneko jabaria partikularrena izan.

3. Mendi pribatuak, berriz, zuzenbide pribatuko pertsona fisiko edo juridikoenak dira, banaka eduki nahiz jabekidetzan.

4. Hauxe da mendien sailkapena, haien ezau-garrien arabera: a) naturgune babestuak eta babes bereziko beste mendi batzuk, b) onura publikoko mendiak, c) mendi babesleak eta d) mendi kalifikatu gabeak.”

Hiru. 6. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu da eta beste bi idatz-zati gehitu zaizkio, testu honekin:

“3. Nafarroako Gobernuak antolaketaren arloan dituen eskumenak galarazi gabe, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak izanen ditu foru lege honek oihan eta ingurumen administrazioari esleitzen dizkion eskumenak.

4. Toki entitateek, beraien lege berariazkoen esparruan eta oihan antolakuntzarako dituzten tresnekin bat, titularitatekoak dituzten mendiak eta herri mendiak kudeatuko dituzte, foru lege honetan ezarritako modu eta baldintzetan.

5. Mendien edo oihan lurren titularitatea duten administrazio publikoen arteko lankidetzaz eta koordinazioa bultzatuko dira.”

Lau. II. tituluaren izena aldatu da, eta aurrerantzean hauxe izanen da:

“II. TITULUA

Mendien sailkapena eta araubide juridikoa”

Bost. II. tituluko I. kapituluaren izena aldatu da, eta aurrerantzean hauxe izanen da:

“I. KAPITULUA

Naturgune babestuak eta babes bereziko beste mendi batzuk”

Sei. 7. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“7. artikulua.- Naturgune babestuak.

1. Naturgune babestuak edo haien zati diren mendiak edo oihan lurak, haien babes eremuak barne, eta Natura 2000 sarekoak ere, foru lege honen menpe egonen dira oihan arloari dagokionez; oihan antolakuntzarako horiei buruz egiten diren planetan edo proiektuetan ingurumenaren ikuspuntutik dituzten balioak kontserbatu eta

babesteari dagokionez horien arau berariazkoetan ezarritakoa jaso beharko da.

2. Oihan administrazioaren esku-hartzeari dagokionez, mendi edo oihan lur horiei emanen zaien tratamendua onura publikoko mendiei ematen zaien berbera izanen da.”

Zazpi. 8. artikuluari 2. idatz-zatia gehitu zaio, testu honekin:

“2. Mendi horiek besterenezinak, preskribaezinak eta enbargaezinak dira, eta ez daude haien titularitatea kargatuko duen inongo tributuren menpe.”

Zortzi. 9. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“9. artikulua. Onura publikoko mendien katalogoa.

1. Onura publikoko deklarazioa duten mendiak eta hemendik aurrera deklaratu direnak Nafarroako Onura Publikoko Mendien katalogoan sarturik daude.

2. Nafarroako Gobernuak egingen du onura publikoaren deklarazioa, ofizios edo titularrak eskatuta, eta oihan administrazioak proposaturik, administrazio prozedura bidez; prozedura horretan entzutea emanen zaie ukitutako entitate publikoari eta mendi horien gaineko eskubideen titularrei, halakorik balego, eta onura publikoko mendiak hartzea eragin duten ezaugarriak justifikatu beharko dira.

3. Mendi bat katalogotik aterako da katalogatzea eragin zuten ezaugarriak galtzen dituzenean, aurreko idatz-zatian aurreikusitako prozeduraren moduko bat erabiliz.

4. Oihan administrazioak baimena eman dezake mendi katalogatu baten mugaketa berriz egiteko, titularrari entzutea eman ondoren, betiere mendiaren azalera hobeki zehazteko edo kudeaketa eta kontserbazioa hobetzeko baldin bada.

5. Foru Komunitateko administrazioak tramitatzeko ari den plan edo proiektuaren onura publikoa edo interes orokorra deklaratu nahi duenean eta horrek Nafarroako onura publikoko mendien katalogoan sartutako mendi edo oihan lur bati eragin ahal baldin badio, Nafarroako Gobernuak aurretik bien arteko bateragarritasun deklarazioa egin beharko du, edo bati besteari gainetik lehentasuna emateko, oihan administrazioak txostena eman ondoren.”

Bederatzi. 15. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“15. artikulua. Onura publikoko katalogoan sartutako mendien gaineko kargak.

1. Onura publikoko mendien katalogoan bertan sartutako mendien gaineko zortasunak eta gaineko eskubide errealek agertu beharko dira.

2. Karga oro behar bezala justifikaturik egon beharko dira. Mendia kargatzen duten zortasunen eta eskubide errealek gainean auzia egonez gero, hala dela jasoko da katalogoan.”

Hamar. II. tituluko III. kapituluaren izena aldatu da, eta aurrerantzean hauxe izanen da:

“III. KAPITULUA

Mendi pribatuak eta mendi babesleak”

Hamaika. 16. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“16. artikulua. Mendi pribatuak.

1. Mendi pribatuak titularrak kudeatuko ditu.

2. Mendi horien kudeaketa oihan kudeaketa edo planifikaziorako tresnari lotuko zaio, eta foru lege honetan ezarritako modu eta baldintzetan gauzatuko da.”

Hamabi. 18. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da. Hona testu berria:

“1. Nafarroako Gobernuak egingen du mendi babeslearen deklarazioa, ofizioz edo titularrak eskatuta, administrazio prozedura bidez; prozedura horretan entzutea emanen zaie jabeei eta mendia dagoen toki entitateari.

Hamahiru. 18. artikuluari 4. idatz-zatia gehitu zaio, testu honekin:

“4. Mendi babesleei aplikatzekoa izanen zaie foru lege honen 15. artikuluan ezarritakoa.”

Hamalau. II. tituluari kapitulu berri bat gehitu zaio, IV.a:

“IV. KAPITULUA

Lehentasunez erosteko eskubidea

19. artikulua. Administrazio publikoaren lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak.

1. Toki entitateek izanen dituzte lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak beraien udal mugapean dauden mendi edo oihan lurren gaineko kostu bidezko transmisioetan. Nafarroako Foru Komunitatearen titularitateko mendien mugakide diren mendi edo lurren kasuan, eskubide hori-

ek, lehenengo eta behin, Nafarroako Foru Komunitatearenak izanen dira, eta subsidiarioki lurak zein udal mugapetan dauden, bertako toki entitatearenak.

2. Ondoren adierazten diren kostu bidezko transmisioetan Nafarroako Foru Komunitateak lehentasunez erosteko eskubidea izanen du, betiere aurreko idatz-zatian toki entitateei aurreikusitako eskubidearen subsidiarioa:

a) 100 hektareatik gorako azalera duten mendiak.

b) Mendi babesle deklaraturakoak eta babes bereziko beste mendi batzuk.

c) Foru lege honen 7. artikuluan araututako mugakide diren mendi edo oihan lurak.

d) Nafarroako Foru Diputazioarekin partzuergoan diren mendiak, partzuergo horietan aurreikusitako baldintzetan.

20. artikulua. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideez baliatzea.

1. Atzera eskuratzeko eskubidearen ondorioetarako, transmisio-egileak eskubidearen titular diren administrazio publikoei transmititzeko asmoa duela jakinarazi beharko die sinesgarriro, eta jakinarazpenean egin gogo duen transmisioaren prezioari eta ezaugarriei buruzko datuak agerrarazi beharko ditu.

2. Eskubidearen titular diren administrazio publikoak ez badira atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzen jakinarazpena izan eta hiru hilabeteko epean, eskubidea iraungi egingen da jakinarazitako transmisioari dagokionez.

Notarioek eta erregistratzaileek ez dituzte eskriturak baimenduko ez inskribatuko, hurrenez hurren, aipaturako jakinarazpena egin dela aurretik inork frogatu gabe.

4. Transmisioa aldeztu aurretiko jakinarazpena egin gabe edo bertan islatutako baldintzak bete gabe gauzatuz gero, lehentasunez erosteko eskubidearen titular den administrazioa atzera eskuratzeko eskubideaz baliatu ahalko da, transmisioa Jabetzaren Erregistroan inskribatu eta urtebeteko epean edo, horrelakorik ezean, transmisio horren baldintza errealek berri modu sinesgarrian izaten duenetik aurrera.

5. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubide horiek lehentasuna izanen dute beste edozeinen gainetik, Nafarroako foru lege zibiletan ezarritakoa ukatu gabe.”

Hamabost. 23. artikulua aldatu da. Hauxe da testu berria:

“23. artikulua. Proiektuak oihan esparrura egokitzea.

1. Interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeko proiektuetan oihan azalera gutxitzerik agertzen bada, ukitutako eremurako basoberritzeko edo basoa lehengoratzeko proiektua erantsiko da, gutxienez ere okupatuko den lur saila adinako azalera batean.

2. Oihan administrazioak aztertu eginen du interes publikoko azpiegiturak eraikitzeko proiektuek hondatu edo urez hartutako oihan azalera, eta aginduzko txostena emanen du aurkezten zaizkion basoberritzeko edo basoa lehengoratzeko proiektuen egokitasunari buruz.

3. Lurzati berrantolamenduko proiektu guztietan zehaztu eginen da zein diren gorde beharreko zuhaitz edo zuhaixken landaredi unitateak. Balio ekologiko berezikoaren kalifikazioa duten heskaiak ezin izanen dira kendu.

4. Proiektu publiko baten jarduketa esparruak ibai ibilgu batekin muga egiten duenean, ibilguaren ondo-ondoko zerrenda bat errespetatuko da, bost metro zabal gutxienez, ur-bazterreko berezko zuhaitzi izan dadin.”

Hamasei. 24. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Oro har, debekaturik dago ahuntz azienda sartzeari zuhaitz edo zuhaixka espeziak dituzten mendietan. Salbuespen gisa, eta erregelamenduz ezarriko den moduan, baimena eman ahalko da ahuntz azienda bazkatzeko mendi horietan.”

Hamazazpi. 25. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatiak aldatu dira, eta beste bi idatz-zati berri gehitu zaizkio artikuluari, testu honekin:

“1. Mendi edo oihan lur baten erabilera aldatzen duen edozein ekintza edo erabakitarako oihan administrazioaren baimena beharko da aurretik.

4. Mendi katalogatu gabekoen kasuan, interesatuak erabileraren aldaketa justifikatzen duen txostena aurkeztu beharko du. Horrelakoetan, isiltasun administrazioa negatiboa dela ulertuko da.

5. Ibai ibilguen ondoan dauden berezko zuhaitzen erabilera aldatzea debekaturik dago, zein den ere lur mota, salbu eta ibilgu horiek gurutzatzen dituzten azpiegiturak paratu edo aldatzeak dakartzanak, horietarako baimena eman ahalko baita.

6. Ur-bazterreko berezko zuhaitzietan jarduketak baimendu ahalko dira, betiere erabilera aldatzea eragin behar ez badute.”

Hemezortzi. 26. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da, eta testua hauxe izanen da aurrerantzean:

“2. Hirigintza planeamenduko tresnek oihan lurren kalifikazioan, mugaketan edo arautzean eragina dutenean, oihan administrazioaren aginduzko txostena beharko da.”

Hemeretzi. 29. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“1. Interes publikoaren arrazoiak tarteko, kontzesio administratiboen kasuetan baimena emanen zaie mendi katalogatuen zortasun eta aldi baterako okupazioei, ondoko lerroaldeetan xedatutakoari jarraikiz, behin lehentasuna edo bateragarritasuna deklaraturik foru lege honen 9.5 artikuluan aurreikusitako moduan.”

Hogei. 32. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“2. Oihaneko izurrite edo gaitz batek ukitutako lurren jabeak beharturik daude horren berri emateara oihan administrazioari.”

Hogeita bat. 37. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“37. artikulua. Oihaneko suteen prebentzioa.

1. Foru Komunitateko administrazioaren eskumena da oihaneko suteei aurrea hartzeko eta haien aurka borroka egiteko behar diren neurriak planifikatu, koordinatu eta gauzatea; horrek ez ditu beste administrazio publiko batzuen eskumenak galarazten, eta areago, lankidetzaren harremanak izanen ditu haiekin.

2. Oihanean sute bat dagoela edo hasi dela ikusten duenak horren berri eman beharko dio agintari eskudunari edo larrialdietako zerbitzuei.

3. Erregelamenduz arautuko dira oihan lurretan eta mugakideetan dauden auzuneei, bestelako eraikinei, obrei, instalazio elektrikoari eta garraio azpiegiturari aplikatzekoak zaizkien segurtasun arauak, horiek sutea sortzeko edo haren eraginpean egoteko arriskua dagoenean.

4. Oihan administrazioak mugak jarri ahalko dizkio mendietan eta mugakide diren eremuetan sute arriskua eragin dezaketen jarduerari, bertatik iragateari barne.”

Hogeita bi. 39. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“39. artikulua. Sua erabiltzeko baldintza orokorrak.

1. Hurrengo idatz-zati eta artikuluetan ezarritakoa ukatu gabe, debekaturik dago oro har sua erabiltzea mendietan eta oihan lurretan. Era berean,

debekaturik dago sua erabiltzea lehorreko landa lurretan galondoak kentzeko.

2. Sua jostetako helburuetako erabiltzeko baimena dago. Halere, oihan administrazioak mugatu edo debekatu ahalko du erabilera hori eguraldiaren arabera.”

Hogeita hiru. 40. artikulua aldatu da. Hauxe da testu berria:

“40. artikulua. Suaren erabilera oihan edo nekazaritza kudeaketan.

1. Debekaturik dago, halaber, ur-bazter, ezponda, muino eta, oro har, zuhaixka eta landareei su ematea.

2. Nekazaritzako hondakinen erretzea errege-lamenduz arautuko da.

3. Salbuespen gisa, oihan administrazioak suaren erabilera baimendu dezake oihan edo nekazaritza kudeaketarako tresna gisa, haren ordez beste bitartekorik erabiltzerik ez dagoenean.”

Hogeita lau. 42. artikuluko 2. idatz-zatia aldatu da, eta hauxe izanen da testu berria:

“2. Oihan administrazioari dagokio oihaneko suteen ondorioz kaltea jasandako oihan aberastasuna bere hartara bueltatzea eta prebentzio neurriak betearaztea. Eskumen horiek galarazi gabe, oihan administrazioak dirulaguntzak eman ahalko ditu titularrek beraiek egindako lanetarako.”

Hogeita bost. 44. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“44. artikulua. Lehengoratze hidrologikoa eta oihan arlokoa.

1. Oihan administrazioari dagokio Nafarroako lehengoratze hidrologikoa eta oihan arlokoa gauzatzeko lanak planifikatu eta egitea, beste administrazio publiko batzuekin hitzarmenak ezartzeko aukera ukatu gabe.

2. Lehengoratze planak, lanak eta neurriak onura publikokoak izanen dira desjabetzeen ondorioetarako, eta nahitaezkoak ukitutako eremuetan lurak dituztenentzat.

3. Desjabetutako lurak, onura publikoko mendien edo haien mugakideen eremuan daudenean, mendi katalogatuaren titular den entitate publikoaren ondarean sartuko dira.

4. Higadura zuzentzeko proiektuak onesteko tramitean entzutea eman beharko zaie ukitutako mendi eta lurren titularrei.

5. Hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen den basoei buruzko planaren barrenean sartuko

dira Nafarroan dauden higadura arazoak, kopuruak eta eremuak zehaztuta, baita lehengoratze hidrologikoa eta oihan arlokoa egiteko lanen lehentasuna eta programazioa ere.

Hogeita sei. 45. artikuluko 4. idatz-zatia aldatu da, eta hauxe izanen da testu berria:

“4. Oihan administrazioak onetsi beharko ditu basoberritzeko proiektuak, salbu eta onura publikokoak edo babesleak edo foru lege honen 7. artikuluan arautuak ez diren eta administrazioak berak onetsitako kudeaketa tresna bat duten mendien kasuan, betiere proiektuak aipatutako tresnak agintzen duenari lotuz betetzen badira; horrelakotan alde zuzenetik jakinaraztea izanen da betebeharrak bakarra.”

Hogeita zazpi. 49. artikuluko 1. idatz-zatia aldatu da, eta testua hauxe izanen da aurrerantzean:

“1. Nafarroako Gobernuak, oihan arloan funtsezko eskumenak dituen kontseilariak proposaturik, eremu edo mendi batean egin beharreko basoberritzea onura publikokoa dela deklaratu ahalko du.”

Hogeita zortzi. III. tituluko V. kapituluko 1. atalaren izena aldatu da, eta hauxe da berria:

“1. atala
Mendien antolakuntza”

Hogeita bederatz. 50. artikulua aldatu da eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“50. artikulua. Oihan antolakuntzako tresnak.

1. Mendi publikoek eta pribatuek mendi antolakuntzako proiektua edo oihan kudeaketarako plan teknikoa eduki beharko dute, oihan administrazioak onetsia.

2. Oihan administrazioak emanen ditu antolakuntzako proiektuak eta plan teknikoak egiteko jarraibide orokorrak.

3. Mendi publikoetan, babesleetan eta foru lege honen 7. artikuluan araututakoetan, oihan administrazioak eginen ditu antolakuntzako tresnak. Mendiaren titularrak ere parte hartuko du horien presaketan. Gainerako mendi pribatuetan titularrak eginen du.

4. Tresna horiek egiteko prozesua unibertsitatemailako oihan arloko titulazioa duten profesionalak zuzendu eta gainbegiratu beharko dute.

5. Tresna horien edukia nahitaezkoa eta bete beharrekoa izanen da foru lege honetan araututako gaietan, eta orientabide gisa erabiliko da beste edozein jarduketa, plan edo programa sektoriali begira.”

Hogeita hamar. 2. atalaren izena aldatu da, eta 51. artikulua aurretik kokatuko da:

“2. atala
Mendien aprobetxamenduak”

Hogeita hamaika. 51. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“51. artikulua. Oihan aprobetxamenduei buruzko ohar orokorrak.

1. Mendietako oihan aprobetxamenduak natur baliabide berriztagarriak direla kontuan hartuz egiten dira beti, eta haien erabilera arrazoizkoa eta natur ingurunearen zainketa egokia bateratuz.

2. Era berean, mendietako aprobetxamendu oro, haien sailkapena edozein izanik, oihan administrazioaren esku-hartzearen menpe egonen dira, foru lege honetan eta honen garapen xedapenetan ezarritako moduan.”

Hogeita hamabi. 52. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“52. artikulua. Oihan aprobetxamenduen motak.

Foru lege honen ondorioetarako, hauexek dira oihan aprobetxamenduak: zur eta egurretarako direnak, oihan biomasa barne, larreak, fruituak, landare usaintsuak eta sendabelarrak, zizak eta boilurrak, erlezaintzaren produktuak, eta mendietako gainerako ohiko produktuak, zerbitzu eta jarduerak, jostetakoak, hezkuntza edo kultura arloetakoak, merkatuko balioa dutenak.”

Hogeita hamahiru. 53. artikulua aldatu da. Hauxe da testu berria:

“53. artikulua. Aprobetxamendu eta hobekuntza planak mendi publikoetan.

1. Mendi publikoetan, foru lege honen 7. artikuluan aurreikusitako mendietan eta mendi babesleetan egindako zur eta egurretako aprobetxamendu guztiak oihan administrazioak onetsi beharreko aprobetxamendu eta hobekuntza planetan zehaztu beharko dira.

2. Mendi horiek antolatutako badira, oihan administrazioak egiten du ofizios plan hori, mendiaren titularrekin batera. Salbuespen gisa, onetsitako antolakuntzako proiektuetan edo kudeaketarako plan teknikoetan aurreikusirik ez dauden aprobetxamenduetarako baimena eman ahalko da.

3. Mendi horiek antolaturik ez badaude, oihan administrazioak egiten du plana, titularrekin batera eta hark eskatu ondoren. Salbuespen gisa, aprobetxamendu txikietarako baimena eman ahalko da prozedura erraztu baten bidez, hau da,

aldez aurretik aprobetxamendua jakinarazita eta isiltasuna positiboa dela ulertuta.

4. Titularrak nahitaez bete beharko du aprobetxamendu plana, behar bezala baimendutako arrazoi justifikatua dagoenean izan ezik; halaber, hobekuntzarako mozketak eta birsortzeko mozketak edo amaierakoak bereizi beharko ditu, eta deskribatu.

5. Planean dagoen baldintza teknikoaren ple-guan honakoak jasoko dira: oihanzaintzako jarraibideak, ustiategi motak eta egurra ateratzeko bideak. Aprobetxamenduaren balorazio ekonomikoa edo hura besterentzeko modua ez dira baldintza teknikotzat hartuko. Oihan administrazioak egiten du aprobetxamenduaren balorazio ekonomikoa, dagozkion kasuetan, eta balorazio hori orientatibidezkoa izanen da, ez loteslea.”

Hogeita hamalau. 54. artikulua aldatu da. Hauxe da testu berria:

“54. artikulua. Jarduketak mendi publikoetako oihan aprobetxamenduetan.

1. Oro har, eta aurreko artikuluan aurreikusitako mendietan, oihan administrazioak beteko ditu aprobetxamenduari datzekion jarduketak. Jarduketa horiek zein diren erregelamenduz zehaztuko da.

2. Oihan administrazioari eskatuta eta haren adostasunarekin, titularrek jarduketa horiek bere gain hartu ahalko dituzte, hobekuntzarako mozketetan eta arraseko mozketetan.

3. Jarduketa horiek oihan administrazioak hartuko ditu bere gain birsortzeko mozketetan.

Hogeita hamabost. 55. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“55. artikulua. Oihan aprobetxamenduak mendi pribatuetan.

1. Mendi pribatu antolatu guztietan, babesleetan eta foru lege honen 7. artikuluan araututakoetan izan ezik, zur eta egurretako aprobetxamendua titularrak hasiko du, oihan administrazioari jarduketa planaren berri emanaz; oihan administrazioak bi hilabeteko epean eman beharko du baimena, eta haren baldintza teknikoak ezarri ahalko ditu, bai eta zuhaitzia birsortzeko behar diren ekin-tzak ere. Espresuki ebazpenik eman gabe bi hilabete iragan ondoren, plana isiltasun positiboaren bidez baimendu dela ulertuko da.

2. Antolatu gabeko mendi pribatuetan, berriz, babesleetan eta foru lege honen 7. artikuluan araututakoetan izan ezik, zur eta egurretako aprobetxamenduak egiteko oihan administrazioaren baimena

na beharko da, titularrak eskaera egin eta bi hilabeteko epean emana. Baimenean aprobetxamendurako baldintza teknikoak ezarri ahalko dira, bai eta zuhaitzia birsortzeko behar diren ekintzak ere. Espresuki ebazpenik eman gabe bi hilabete iragan ondoren, isiltasuna negatiboa dela ulertuko da.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa galarazi gabe, eta aprobetxamendu txikiatarako, baimenerako prozedura erraztu bat ezarriko da erregelamenduz, aurretiko jakinarazpenarekin eta isiltasun positiboarekin.”

Hogeita hamasei. 56. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“56. artikulua. Basoa lehengoratzeari amaierako mozketen ondotik.

1. Arraseko mozketetan, titularrak soilgutako lurretako zuhaitzia 5 urteko epean lehengoratu beharko du, berezko birsortzea bultzatuz edo basoberritze artifizialaren bidez. Hala egiten ez badu, oihan administrazioak egingen du, jabearen kontura.

2. Mozketak ibai ibilguaren aldamenean egiten badira, ibilguaren ondo-ondoan zerrenda bat lehengoratu beharko da, bost metro zabal gutxienez, bertako landarekiko zuhaitz eta zuhaixkak sartuz.”

Hogeita hamazazpi. III. tituluko V. kapituluko hirugarren atalaren izena aldatu da; 61. artikulua-ren aurretik dago:

“3. atala
Mendiak batzea”

Hogeita hemezortzi. 61. artikulua aldatu da, beste bi idatz-zati gehitzeko. Hauxe da horien testua:

“3. Oihan batasunek beraien entitatea izan behar dute, kideenetik bereizia, eta jarduera eta funtzionamendua oihan kudeaketako unitatearen printzipioari lotu beharko zaizkio, dagokien oihan antolakuntzako tresnaren bitartez.

4. Oihan batasunen erregistro bat ezarri ahalko da erregelamenduz, eta bertan inskribatu beharko dira.”

Hogeita hemeretzi. III. tituluko V. kapituluari 4. atala gehitu zaio. 62. artikulua-ren atzetik dago, izen honekin:

“4. atala
Oihan enpresak”

Berrogei. 63. artikulua aldatu da. Hauxe da testu berria:

“63. artikulua. Oihan sektorearen sustapena.

1. Nafarroako Gobernuak oihaneko lan- eta zerbitzu-enpresen birmoldaketa eta hobekuntza sustatuko ditu, bai eta lehen transformazioko industria ere, honakoenak barne: zerrategiak, xaflak, oholak, oreka, papera eta kortxoak. Sustapena honakoetan oinarrituko da:

a) Oihan ekoizpenaren sektorean eta egurraren lehen transformazioko industrian aritzen diren profesionalen arteko harremanak bultzatzea.

b) Industria horiek hobetu eta birmoldatzeko dirulaguntza araubide berariazkoa ezartzea.

c) Lankidetzaren hitzarmenak sustatzea oihaneko produktuen transformazioaren arloan ikertzen duten zentro publiko nahiz pribatuaren eta sektoreko enpresen artean, behar den teknologia transferentzia eta transformazio prozesuen modernizazioa eta hobekuntza ahalbidetzeko.

2. Oihan kooperatiben, enpresen eta industrien erregistro bat sortuko da, eta horiek urtero emanen dituzte haien jarduerari buruzko datuak, bereziki oihaneko produktuen ekoizpen, transformazio eta merkaturatzeari buruzkoak, ondorio estatistiko-etarako.

3. Nafarroako Gobernuak oihan arloko enpresaburuen, langileen eta jabeen prestakuntza bultzatuko du.”

Berrogeita bat. Atal berri bat gehitu zaio III. tituluko V. kapituluari:

“5. atala
Oihaneko produktuak merkaturatzea

63. bis artikulua. Oihaneko produktuak merkaturatzea.

1. Oihan administrazioak mendien edo oihan aprobetxamenduen titularrek oihan ziurtagiria aplikatu dezaten bultzatuko du.

2. Oihan administrazioak egurraren eta mendi-eta beste produktuen erabilera sustatuko du, bai eta oihaneko produktu eta zerbitzuen erabilera berriak ezarri eta garatzea ere.

3. Era berean, oihaneko produktuak merkaturatzeko baldintzak hobetzea sustatuko du.

4. Nafarroako oihan ondarean sartutako mendi-eta oihan aprobetxamenduak erregelamenduz ezarriko den prozeduraren bidez besterenduko dira.”

Berrogeita bi. IV. tituluaren izena aldatu da, eta hauxe izanen da aurrerantzean:

“IV. TITULUA
Mendien hobekuntza eta oihan
sektorearentzako laguntzak”

Berrogeita hiru. 66. artikulua aldatu da eta hauxe da testu berria:

“66. artikulua. Oihan sektorearekin lankidetzan aritzea.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak, dagozkion aurrekontuen mugen barnean, laguntza teknikoa eta ekonomikoa emanen die mendi edo oihan lur publiko nahiz pribatuen titularrei, oihan aprobetxamenduen titularrei, oihan elkarteei eta oihan industria eta enpresei.”

Berrogeita lau. 67. artikuluari 3. idatz-zatia gehitu zaio. Hauxe da testua:

“3. Oihanzaintzako hobekuntza lanak, hala nola, bakantzeak, sastrakak garbitzea, kimaketak, eta merkataritzako aprobetxamendurik ez duten gainerako tratamenduak, onetsitako aprobetxamendu eta hobekuntza planaren edo jarduketa planaren arabera eginen dira. Horrelako planik ez bada, edo hobekuntzak ez badaude planetan sarturik, oihan administrazioaren baimen espresua beharko da.”

Berrogeita bost. 68. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“68. artikulua. Oihan ekintzak.

Foru lege honen 66. artikuluan xedatutakoari dagokionez, oihan administrazioak ekintza hauek arduratuko da:

a) Mendien eta oihan lurren erabilera, kudeaketa eta babesari buruzko plangintza orokorra.

b) Antolakuntza planak, horien aldizkako berrikuspenak, eta mendien erabilera eta aprobetxamendu antolatua, natura baliabideak zaintzearekin bat datozena, xede dituzten plan teknikoak.

c) Lurraren egonkortasun eta emankortasuna mantendu eta berreskuratzeko beharrezkoak diren zuzentze lanak, hidrologikoak eta oihan arlokoak.

d) Suteek edo beste gertaera batzuek suntsitutako oihanak berriz sortzea.

e) Oihaneko suteei aurrea hartzeko azpiegiturak eraiki eta zaintzea, bai eta oihanzaintza prebentiborako lanak ere.

f) Oihanari buruzko ikerketa eta esperimentazio lanak.

g) Oihaneko izurriteen kontrako borrokarako ekintzak, Nafarroako Gobernuak horien tratamendua onura publikokoa dela deklaratu duenean.

h) Nafarroako zuhaitzien azalera handitzea, birsortzeko eta zuhaitzi heldu bilakatzeko gaitasuna duten basoak sortuz.

i) Mendien biodibertsitatea mantendu eta hobetzea eta oihaneko habitatak lehengoratzeko eta zabaltzeko.

j) Larreak eta mendietako beste produktu natural batzuk hobetzeko obrak eta lanak.

k) Oihanzaintzako hobekuntza lanak, bereziki basoa berez birsortzen laguntzekoak eta oihaneko suteei aurrea hartzekoak.

l) Oihaneko bideak egitea.

m) Nagusiki zur edo egurretako aprobetxamendurako egiten diren basoberritzeak.

n) Mendietako produktuak merkaturatzeko antolaketa arazoizkoa izatea.

ñ) Mendiak jendearen beharretarako eta aisiarako erabiltzen laguntzeko proiektuak eta obrak egitea.

o) Oihan batasunak eta elkarteak bultzatzea, bai eta oihan kooperatibak ere.

p) Gizartea sentsibilizatzea eta mendiek dakartzaten onuren zabalkundea egitea.

q) Lehen transformazioko oihan industriak sustatzea, bai eta oihaneko zerbitzu- eta lan-enpresak ere.”

Berrogeita sei. 69. artikulua aldatu da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“69. artikulua. Oihan ekintzen programazioa eta finantzaketa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak programatu eta finantzatuko ditu osotara, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, aurreko artikuluko a), c), d), e), f) eta g) letretan aipatutako ekintzak, bai eta b) letretan adierazitakoak ere mendi publikoen, babesleen eta foru lege honen 7. artikuluan aurreikusitako antolakuntza planei eta haien berrikuspenei dagokienez.

2. Mendi pribatu ez-babesleei dagokienez, b) letretan adierazitako ekintza, bai eta aurreko artikuluan adierazi eta 69.1 artikuluan aurrekusi gabeko gainerako ekintzak ere, oihan administrazioak edo titularrek beraiek egin ahalko dituzte, kasuan kasuko dirulaguntzak jasoz. Dirulaguntza horiek inbertsio osoaren adinakoak izan daitezke.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatutako ekintzek ukitutako mendien edo oihan lurren titular diren partikularrek lankidetzaz hitzarmenak sinatuko dituzte oihan administrazioarekin, sortutako azpiegiturak erabiltzeko, salbu eta gero batean mendien titularrek aprobetxatuko dituzten produkzioak.”

Berrogeita zazpi. 70. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“70. artikulua. Oihan arloko dirulaguntzak.

Nafarroako Gobernuak 69.2 artikuluan aipatzen diren dirulaguntzei buruzko erregelamendua egiten du, ondoko hauek kontuan hartuta:

a) Onura publikoko mendiek eta oihan lurrek, mendi babesleek eta foru lege honen 7. artikuluko mendiek ingurumenean duten eragina dela eta, lehenatasuna izanen dute laguntzak emateko garaian eta haien zenbatekoan, gainerako mendi edo oihan lurren aurretik. Mendi antolatuek ere lehenatasuna izanen dute laguntzak emateko garaian.

b) Laguntzen mailaketa diruz lagundu beharreko ekintzaren onura publikoa kontuan hartuta egiten da.

c) Oihan jabeen batasun, elkarte edo kooperatibek, kudeaketa unitatea baldin badira, onura publikoko mendien edo mendi babesleen laguntza berdina izanen dituzte.

d) Laguntzak bateragarriak izanen dira Europar Batasuneko legerian ezarritakoekin.

e) Laguntzak ematea aurrekontuaren mugen menpean egonen da, edozein kasutan ere.”

Berrogeita hamar. V. titulua aldatu da, eta testu hau izanen du:

“V. TITULUA Zehapen araubidea

I. KAPITULUA Arau-haustek

75. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa.

Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako honako hauek dira arau-haustek:

- a) Oihan erabilera baimenik gabe aldatzea.
- b) Onura publikoko mendietan baimenik gabe egindako erabilera edo okupazioa.
- c) Behar den titulu administratiboa izan gabe mendietan edo oihan lurretan arbolak moztu, errotik atera, hondatu, eta egurra egin edo eramatea.
- d) Mendietako fruituak, landare edo mea produktua edo materialak baimenik gabe ustiatu edo

eramatea, legeak horretarako baimena izatea eskatzen duenean.

e) Mendian ezer erretzea, sua erabiltzea edo mendian sua sorraraz dezakeen jardueraren bat egitea baimenik gabe, edo baimenduetako jardueretan administrazioak ezarritako aginduak urratuz.

f) Suaren erabilera arautzen duten xedapenak, oihaneko suteen prebentzio eta itzalketarako emandakoak, ez betetzea.

g) Mendietan edo oihan lurretan, debekaturik dagoen tokian azienda bazkatzea, edo administrazioak ezarritako arauak lotu gabe.

h) Mendien edo oihan lurren titularrek ez betetzea foru lege honen arabera ezarri zaizkien betebeharrak.

i) Basotzeak edo basoberritzeak espresuki debekatutako ugalketa-materialekin egitea.

j) Baimenik gabeko tratamendu fitosanitarioak erabiltzea.

k) Egurra ateratzeko bideak, pistak edo beste edozein obra egitea antolakuntzako proiektuetan aurreikusirik ez badago edo administrazioak espresuki baimendua ez bada.

l) Mendien antolakuntzako proiektuen eta aprobetxamendu eta hobekuntza planen edukia ez betetzea, horrek mendiaren garapen ohikoari eragiten dionean, eta arrazoi tekniko justifikaturik gabe.

m) Mendiei eragindako kalteak konpondu eta lehengo egoeran uzteko betebeharrak eta horretarako emandako kautelazko neurriak ez betetzea.

n) Titularitate publikoko mendietan eta horretarako debeku espresua dagoen oihaneko bide edo eremuetan ziklomotoiak, motozikletak, quadak eta, oro har, motordun ibilgailuak zirkulatzea edo/eta egotea.

Debeku horrek ez du eraginik izanen oihan-zaintza edo nekazaritzarekin lotutako lanetan.

o) Administrazio publikoek eta haien agenteek foru lege honen xedapenak eta garapen arauak betetzeari dagokionez egin beharreko ikerketa, ikuskapen eta kontrol jarduketak oztopatzea, ekintzez nahiz ez-betetez.

p) Mendiko landare geruzaren funtsezko aldaketa egitea baimenik edo jakinarazpenik gabe.

q) Oihan lurretan isurketak egitea baimenik gabe.

r) Partikularrek administrazioari informazioa emateko duten betebeharrak ez betetzea.

s) Foru lege honetan ezarritako beste betebeharrak edo debeku batzuk ez betetzea, zati batean nahiz osotara, ez eta administrazioak arau honetan jasotako gaietan ezarritako baldintzak ere.

76. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

1. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

2. Arau-hauste arinak aurreko artikuluan tipifikaturiko arau-hausteak dira, arau-haustea eragin duten egitateek kalterik ekartzen ez diotenean mendiari edo kalteak 1.000 eurotik beherakoak badira edo horiek konpondu edo kaltea jasandakoa lehengoratzeko epea sei hilabetekoa denean gehienez.

3. Arau-hauste larriak aurreko artikuluan tipifikaturikoak dira, arau-haustea eragin duten egitateen kalteen balioa 1.000 eurotik 6.000 eurora bitartekoa denean edo kalteak konpontzeko edo kaltea jasandakoa lehengoratzeko epea gehienez ere 6 hilabetetik 10 urtera bitartekoa denean.

4. Arau-hauste oso larriak aurreko artikuluan tipifikaturikoak dira, arau-haustea eragin duten egitateen kalteak 6.000 eurotik gorako balioa duenean edo kaltea konpontzeko edo kaltea jasandakoa lehengoratzeko epea 10 urtekoa edo gehiagokoa denean.

77. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

1. Arau-hausteak preskribatzeko epea hiru urtekoa izanen da arau-hauste oso larrien kasuan, bi urtekoa arau-hauste larrien kasuan eta urtebetekoa arinen kasuan.

2. Preskripzio epea arau-haustea egin den egunean hasiko da. Segidako traktuko arau-hausteen kasuan, epea arau-haustea ekarri duten egin-tzak amaitu edo baimendu ziren unean hasiko da.

78. artikulua. Arau-hausteen erantzuleak.

1. Foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteen erantzuleak horien egile diren pertsona fisikoak edo juridikoak izanen dira, bi kasu hauetan: bata, arau-haustea ekarri duen jarduera zuzenean bete duelako edo hura gauzatzeko agindu duela-ko, egilearekin kontratu edo egitatezko harremana izanik, betiere egilea agindua eman duenaren menpean dagoela frogatzen bada; bestea, haren laguntza beharrezkoa delako arau-haustea gauzatzeko.

2. Arau-haustea batera egin duten pertsonetako bakoitzak zenbateraino parte hartu duen zehazterik ez dagoenean, erantzukizun solidarioa egotziko zaie, ezertan ukatu gabe erantzukizuna

beren gain hartu dutenek gainerako parte-hartzai-leekin banatzeko duten eskubidea.

II. KAPITULUA Zehapenak

79. artikulua. Zehapenen pilatzea.

1. Arau-hauste baten erantzuleak bat baino gehiago direnean, zehapen bana ezarriko zaie.

2. Bi arau-hauste edo gehiagoren erantzuleari zehapen bat ezarriko zaio egindako arau-hauste bakoitzeko.

80. artikulua. Diru-zehapenak.

Foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteei honako zehapen hauek ezarriko zaizkie:

a) Arau-hauste arinei 6.000 euro bitarteko isuna.

b) Arau-hauste larriei 6.001 eurotik 30.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larriei 30.001 eurotik 100.000 eurora bitarteko isunak.

81. artikulua. Zehapen osagarriak.

Honako zehapen osagarri hauek ere ezarri ahal-ko dira:

a) Kaltea eragin duten jarduerak edo instalazioak aldi baterako etetea, neurri zuzentzaileak abian jarri bitarte.

b) Jarduerak edo instalazioak behin betikoz ixtea, osotara nahiz zati batean.

c) Arau-haustea ekarri duten jardueretan aritze-ko gaitzen duen lizentzia edo titulua ezeztatzea.

d) Lortutako produktuak konfiskatzea eta abel-buruak atzematea, bai eta arau-hausterako erabili-tako tresnak eta bitartekoak ere.

e) Arau-hausleak jasotako laguntzak eta dirulaguntzak galtzea.

82. artikulua. Zehapenak mailakatzeko irizpideak.

Zehapenak ezartzerakoan, behar den oreka gordeko da arau-haustea sortu duen egintzaren larritasunaren eta ezartzen zaion zehapenaren artean. Honako irizpideak hartuko dira bereziki aintzat zehapena mailakatzeko:

a) Nahita egin den.

b) Berrerortzea; arau-haustea egiten den unean izaera bereko beste arau-hauste bat, bide administratiboan irmoa den ebazpenak hala dela-

karatutakoa, egin zenetik hiru urte iragan ez badira izanen da berrerortzea.

c) Arau-hausleak lortutako etekin ekonomikoa edo irabazizko edukia.

d) Aldatutako errealtate fisikoa lehengoratzeko aukera.

83. artikulua. Zehapenen murriztapena.

Zehapena edo haren zenbatekoa murriztu ahalko da baldin eta arau-hausleak kasuan kasuko eskaeran ezartzen zaion epean zuzendu badu arau-hausteak eragindako egoera.

84. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

1. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenek hiru urteren buruan preskribatuko dute, arau-hauste larriengatik ezarritakoek bi urteren buruan eta arau-hauste arinengatik ezarritakoek urtebeteren buruan.

2. Zehapenak preskribatzeko epea zehapena ezartzen duen ebazpena irmoa izan eta biharamunen hasiko da.

3. Interesatua jakinaren gainean egonik beteazpen prozedura hasteak zehapenen preskripzioa etenen du, eta epeak iragaten segituko du prozedura hori hilabete baino gehiago geldiarazten bada, arau-hausleari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik.

III. KAPITULUA Zehapen prozedura

85. artikulua. Zehatzeko eskumena.

Foru lege honetan aurreikusitako zehapen eskumenaz oihan arloan eskuduna den zuzendari nagusia baliatuko da arau-hauste arin eta larrien kasuan, eta kontseilari eskuduna arau-hauste oso larrien kasuan.

86. artikulua. Aurreiazko jarduketak.

1. Zehapen espedientea hasi baino lehen, hura abiarazteko eskumena duen organoak, gertaerak argitze aldera, aurreiazko informazioaldi bat irekitzeko agindu ahalko du, kasu zehatzaren nondik norakoak ikertu eta prozedura abiarazi behar den ala ez den erabakitzeko.

2. Aurreiazko informazio hori erreserbatua izan ahalko da, eta ez da hilabete batetik gora luzatuko, non eta espresuki erabakitzen ez den beste epe jakin baterako edo batzuetarako luzatzea.

3. Ikuskapen eta kontrol jarduketek, horiek jasorik uzteko egintza edo agiriek, administrazioak egindako analisi edo kontrolek eta lehenbiziko

idatz-zatian aipatutako aurreiazko jarduketek ez diote hasiera emanen zehapen prozedurari.

87. artikulua. Administrazio prozedura.

1. Foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteen espedienteen instrukzioa egiteko eta zehapenak ezartzeko administrazio prozedura ofizios hasiko da beti eta hauxe izanen da:

a) Organo eskudunak emanen dio hasiera, ofizios edo salaketaren ondorioz egindako jarduketak direla bide. Hasteko ebazpenean izendatuko da instruktorea, zeina zuzenbideko lizentziatu titulua izatea beharrezkoa den lanpostu batean aritzen den pertsona bat izan beharko baita.

b) Instruktoarak karguen plegua idatziko du, zehapena ezartzeko proposamena barne dela, eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio, hama-bost eguneko epean bere eskubideen aldeko alegazioak aurkez ditzan.

c) Alegazioetarako epea iraganik, beharrezkotzat jotzen dituen eginbideak egin ondoren, instruktoarak espedientea igorriko dio ebazteko eskumena duen organoari eta honek hilabete epean emanen du ebazpena.

2. Aurreko zenbakian aipatutako karguen pleguak, zehapena ezartzeko proposamena barnean duenak, gutxienez ondokoak bilduko ditu:

a) Ustezko arau-hauslearen identifikazioa eta jakinarazpenetarako helbidea.

b) Egitate egiaztatutako, arau-haustea tipifikatzeko eta zehapena mailakatzeko garrantzizkoak direnak nabarmendurik.

c) Ustezko arau-haustea, hautsitako araua zein den zehazturik.

d) Proposatutako zehapena, haren maila eta zenbatekoa zehaztuta.

e) Bidezkoa denean, kalte eta galerengatik eman beharreko ordaina.

f) Zehapen osagarriak, bidezkoak direnean.

g) Atzeman edo konfiskatu diren arma, tresna eta aleekin zer egingen den.

h) Ebazteko eskumena duen organoa.

88. artikulua. Egiazkotasunaren presuntzioa.

Administrazioako kideek, ikuskapen edo zaintza eginkizunak betetzen ari direlarik, egiten dituzten ikuskapen-aktetan edo salaketetan azaltzen diren egitateak egiazkotzat hartuko dira, kontrako frogarik ezean.

89. artikulua. Prozedura iraungitzea.

1. Zehapen prozeduran ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea urtebetekoa izanen da, espedientea abiarazteko administrazio ebazpena ematen den egunetik hasita.

2. Ebazpena emateko eskumena duen organoak, administrazio ebazpen arrazoitua emanda eta bidezko arrazoiengatik, ebazteko epea luzatu ahalko du, hasierako epearen erdia gainditzen ez duen denborarako.

IV. KAPITULUA

Kautelazko neurriak eta kaltea konpontzea

90. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Oihan administrazioak beharrezkotzat jotzen dituen behin-behineko neurriak hartu ahalko ditu, konfiskatzea barne, ustez arau-haustea eragin duen jarduerak sortutako kaltea geldiarazteko.

2. Prozeduraren hasieran espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoak neurri horiek berretsi beharko ditu. Era berean, kautelazko neurri gehiago ezarri ahalko ditu eman daitekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko.

91. artikulua. Kaltea konpontzea.

1. Kasu bakoitzean bidezkoak izan daitezkeen zehapen penal edo administratiboak ezertan ukatu gabe, arau-hausleak egindako kaltea konpondu beharko du, zehapen organoak ezarritako moduan eta baldintzetan. Betebehar horrek ez du preskribatuko oihaneko jabari publikoari egindako kalteen kasuan.

2. Konponketaren helburua kaltea jasandako mendia edo oihaneko ekosistema arau-haustea gertatu aurretik zegoen egoeran uztea izanen da. Konponketa ezinezkoa denean administrazioak kalte-ordaina eskatu ahalko du.

3. Mendiari eragindako kalteak eta horiek konpondu edo mendia lehengoratzeko epea zehapen ebazpenean behar bezala arrazoituriko irizpide teknikoaren bidez zehaztuko da.

4. Kaltetutako errealtate fisikoa lehengora bueltatzea edo lurra jatorrizko egoeran uzteko erantzuleak duen betebeharrak iraun eginen du arau-haustea preskribatzen badu ere.

92. artikulua. Kalte-ordainak.

1. Kalte eta galeren erantzuleak, legez ezarritako isuna ez ezik, bidezkoak diren kalte-ordainak ere ordaindu beharko ditu, administrazioak irizpi-

de teknikoaren arabera horien balorazioa egin ondoren.

2. Suteen arloko arau-hausteen kasuan, erantzuleak bidezkoak diren kalte-ordainak ordaindu beharko dituzte, ordaindutakoaren zenbatekoa istripuaren zuzeneko ondorio gisa eskuratu duten irabazi adinakoa izan arte.

3. Kalte-ordaina eskatu ahalko da, halaber, arau-hausleak lortutako etekin ekonomikoa aurreikusitako gehieneko zehapena baino handiagoa denean. Kalte-ordain hori etekinaren zenbatekoaren bi halako izanen da, gehienez ere.

93. artikulua. Behartzeko isunak eta betearazpen subsidiarioa.

1. Arau-hausleak ez badute konponketa egiten edo kalte-ordaina ordaintzen foru lege honetan ezarritakorekin bat, eta kasuan kasuko errekerimenduan adierazitako epea iraganik, zehapen organoak behartzeko isunak ezartzea edo betearazpen subsidiarioa ezar dezake.

2. Behartzeko isunak errepikatu ahalko dira, agindutakoa betetzeko behar adinakoak diren denbora-tarteak utziz, eta isun horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izanen egindako arau-haustea ezarritako isunaren 100eko 20tik gorakoa.

3. Administrazioak betetzen badu agindutako konponketa, arau-hauslearen kargura izanen da.”

Xedapen gehigarria

Xedapen gehigarri bakarra. Basoberritzeen zorrak barkatzea.

Foru lege honek indarra hartzean besterik gabe barkatuta geldituko dira lehenago egindako basoberritzeengatik oihan jabe eta titularrek Nafarroako Gobernuarekin dituzten zorrak, Nafarroako Foru Diputazioak hartutako erabaki hauekin bat: 1923ko apirilaren 10ean hartutakoa, Nafarroako mendietako basoen lehengoratzeari buruzkoa, eta 1954ko maiatzaren 4koa, basoberritzeetarako laguntzei buruzkoa, 1966ko ekainaren 10eko Erabakiaren bidez gehitutakoarekin.

Xedapen iragankorra

Xedapen iragankor bakarra. Hasitako prozeduren tramitazioa.

Foru lege honek indarra hartu aurretik hasitako prozeduren tramitazioak aurreko legeriarekin bat eginen du aurrera.

Xedapen indargabetzailea

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

1. Indarrik gabe gelditu dira Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen 27., 35., 41. eta 46. artikulua, 45. artikuluko 5. idatz-zatia, 72. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak eta xedapen iragankorra.

2. Indarrik gabe gelditu da Nafarroako naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legearen 27. artikuluko 2. idatz-zatia.

Azken xedapenak

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman dezan foru lege hau garatu eta betearazteko.

Azken xedapenetan bigarrena. Nafarroako Gobernuari baimena ematea lege testuak bategin ditzan.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita sei hilabeteko epean, gehienez ere, legegintzako foru dekretu baten bidez Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko legezko xedapen indardunen testu bategina taxutu eta onetsi dezan, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 21. artikulua babespian.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indar hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabetera hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun laguntzako medikuen aldarrikapenak aintzat har ditzan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun laguntzako medikuen aldarrikapenak aintzat har ditzan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak:

"Plataforma 10 minutos" ekimenak iragarri du heldu den azaroaren 10erako greba deituko duela oinarrizko osasun laguntzan. Horrek argi uzten du berriro ere Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak ez dituela medikuen eskakizunak konfiantza hartzen.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako oinarrizko osasun laguntzako medikuen eskakizunak aintzat har ditzan eta 2007. urteko aurrekontuetan ondoko gaiak aurre egiteko kontusailak onets ditzan:

A) Medikuei bakoitzari dagokion banan banako osasun txartel kopurua 1300 izatea helduen medikuentzat eta 800 pediatrikoentzat.

B) Medikuei bakoitzak 25 kontsulta izatea eguneko (eskatutakoak, programatuak eta etxez etxeak barne). Halaber, egunean 2 ordu izatea irakaskuntzarako, ikaskuntzarako, ikerketarako, eguneratze ikastaroetarako eta abarretarako.

C) Lanaldia eguneko 7 ordukoa izatea, asteleheneetik ostiralera.

D) Osasun zentro guztietan larrialdi zerbitzua (LBZ) 24 ordukoa izatea.

E) Osasun zentroetako langileen eginkizunak gaur egungo gizarteak dituen beharrezanetara berregokitzea.

F) Oinarrizko osasun laguntzako eraikinak berregokitzea osasun barruti bakoitzaren beharrezanetara.

G) Ordezkapenak egiten dituzten langileei dagokienez, erabateko aldaketa egitea, behin-behineko langile guztien soldata eta lanaldia berdintze aldera, lan kontratu duinen bidez.

Iruñean, 2006ko urriaren 27an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Adierazpen instituzionala, Comptos Ganberaren kudeaketarekiko konfiantza berresteko.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Comptos Ganberaren zeregin instituzionalean eta hark eginiko fiskalizatze lanean duen konfiantza.”

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, Comptos Ganberak Gizarte Ongizate Departamentuari buruzko txostenean sartu eta Nafarroako Gobernuaren eledunak aipatu dituen balorazio politiko eta pertsonalei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI FÉLIX TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak egindako galdera, Comptos Ganberak Gizarte Ongizate Departamentuari buruzko txostenean sartu eta Nafarroako Gobernuaren eledunak aipatu dituen balorazio politiko eta pertsonalei buruzkoa. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Felix

Tabernak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Duela gutxi, Comptos Ganberak Gizarte Ongizateko Departamentuari buruzko txostena egin du. Gobernuaren eledunak txosten hori deskalifikatu du, eta esan du bertan balorazio pertsonalak eta politikoak jasotzen direla.

Hori dela eta:

Zer balorazio pertsonal eta politikotaz ari da Gobernuaren eleduna?

Iruñean, 2006ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Galdera, Nafarroako Gobernuak Comptos Ganberaren objektibotasuna zalantzan jartzeko dituen datuei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak Comptos Ganberaren objektibotasuna zalantzan jartzeko dituen datuei buruzkoa.

Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Iragan urriaren 31n, Nafarroako Gobernuak eledunak adierazpen publiko batzuk egin zituen eta esan zuen Comptos Ganberak Gizarte Ongizateko Departamentuari eta menpekotasuna duten pertsonen ematen zaien laguntzari buruz eginko txostenak, ikuskaturiko proiektuei buruzko "irizpide zorrotz eta objektiboak" baino gehiago,

egilearen "irizpide pertsonal eta politikoei" erantzuten dieten balorazioak jasotzen dituela.

Adierazpen horien bidez, Nafarroako Gobernuak eledunak zalantzan jarri zuen Comptos Ganberaren lana, eta hori oso larria da. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

– Zer datu dauzka Nafarroako Gobernuak Comptos Ganberaren objektibotasuna zalantzan jarri ahal izateko?

Iruñean, 2006ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, tratu txarrak jasan dituzten emakumeak babesteari buruzkoa.*FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, tratu txarrak jasan dituzten emakumeak babesteari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena:

Iragan urriaren 19an eta 20an eginko foru erkidegoaren egoerari buruzko eztabaidan, Gobernuak lehendakariak iragarri zuen tratu txarrak jasaten dituzten emakumei babesa emanen zaiela.

Neurri hori oso garrantzitsua da eta interesgarria iruditzen zaigu; hala ere, jakin nahi dugu hala-ko babesa nola zehaztuko den eta zer baldintza bete behar diren babes hori izan ahal izateko.

Neurri garrantzitsua eta, era berean, handia denez, gai batzuk argitzea nahi dugu.

Galdera:

Zer baldintza bete behar dira tratu txarrak jasaten dituen emakume batek babes pertsonala izan dezan?

Babes pertsonala izan nahi duen pertsonak non eskatu behar du?

Nafarroako Gobernuaren iritziz, zenbat pertsona egon daitezke babes pertsonala izateko beharrean?

Zer baliabide ekonomiko eta giza baliabide daude eskaera horri erantzuteko?

Gobernuak aztertu al du bestelako ekintzarik tratu txarrak jasaten dituzten pertsonen horiek saihesteko? Hala bada, Gobernuak aztertzen ari den proposamenen zerrenda nahi dut.

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Iruña-Jaka autobideko Ledea aldeko behin betiko trazaduraren inguruan egindako proposamenari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Iruña-Jaka autobideko Ledea aldeko behin betiko trazaduraren inguruan egindako proposamenari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak idatziz erantzuteko.

Zioen azalpena:

2006ko otsailean, Ledeko Udaleko ordezkariak, alkatea buru zutela, agerraldia egin zuten Nafarroako Parlamentuko Herrilan Batzordean, Jaka-Iruña autobideak udalerririk iragatean duen trazaduraren egoera azaltzeko. Hirigunetik gertuen iragaten den aukerak herriaren etorkizuneko garapena mugatzen du, eta hori izan zen udalak Nafarroako Parlamentuan agerraldia egiteko arrazoia. Halaber, udalaren arrazoiak entzun ondoren, Herrilan kontseilariak ere egin zuen agerraldia, bi aldeek adostasuna zuen erdibideko proposamen bat egiteko.

Hainbat hilabete iragan dira agerraldi horiek egin zirenetik, baina oraindik ez dago argi autobideak zer trazadura izanen duen Ledeko herrian. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

Zein da Herrilan Departamentuaren proposamena Iruña-Jaka autobideak Ledeko udalerritik iragatean izanen duen behin betiko trazadurari dagokionez?

Iruñean, 2006ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, NUPeko prezioak ezarri dituen ekainaren 20ko 129/2006 ebazpena Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak eta ez Hezkuntza kontseilariak eman izanari buruzko arrazoiak zein diren jakiteko.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, NUPeko prezioak ezarri dituen ekainaren 20ko 129/2006 ebazpena Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak eta ez Hezkuntza kontseilariak eman izanari buruzko arrazoiak zein diren jakiteko. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiaren ekainaren 20ko 129/2006 Ebazpenaren bidez finkatu ziren Nafarroako Unibertsitate Publikoan, 2006-2007 ikasturteko titulu ofizialak eskuratzeko zerbitzu akademikoengatik eta gainerako eskubideengatik ordaindu beharreko prezioak. Bestalde, 2006ko urriaren 6ko 120.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen irailaren 13ko 170/2006 Ebazpenaren bidez haren akats zuzenketa egin zen.

Harritzekoa da Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak prezio publikoen igoera ebazpen soil baten bidez ezartzea. Ebazpenean bertan esaten da "Foru Komunitateko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.1. artikuluko d) idatzatiak emandako ahalmenak erabiliz" emana dela. Aipatu xedapenak ebazpenak emateko ahalmena esleitzen die zuzendari nagusiei, baina inolaz ere ez die esleitzen erregelamenduak emateko ahalmenik. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren esparruan, ahalmen erregelamendugilea duten bakarrak Gobernua, lehendakaria eta kontseilariak dira, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 55. artikulua arabera. Zuzendari nagusiek, berriz, ez dute ahalmen hori, eta, 15/2004 Foru Legearen 36.2 b) artikuluan xedatzen den moduan, xedapen orokorrak emateko ahalmena eskuordetu ezina da.

Tasa eta prezio publikoei buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen 18.2 a) artikuluan aurreikusten denez, prezio publikoak "jaso behar dituen erakundeak gaineko duen departamentuak eta hark proposatuta" ezarri edo aldatuko dira. Bistakoa da prezioak aldatzeko ahalmen erregelamendugilea duen Hezkuntza Departamentuko organoa kontseilaria dela, eta ez zuzendari nagusia.

Dirudienez, ezin da zalantzan jarri ebazpenak ezartzen duen prezio publikoen aldaketak xedapen orokorren edo erregelamenduen izaera duenik. Eta ez soilik hala argitaratu delako Nafarroako Aldizkari Ofizialeko 1.1.1. atalean. 7/2001 Foru Legearen 2.1 artikulua arabera, "Tasa eta pre-

zio publiko propioak pagarazteko, Foru Komunitateak aintzat hartuko ditu Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 45. artikulua aipatzen duen Ekonomi Hitzarmeneko arauak, foru lege honek xedaturikoa, hori garatzeko ematen diren erregelamenduzko arauak eta aplikagarri diren gainerako xedapenak". Begi bistakoa da aipatutako ebazpenak dituen xedapenak aipatu foru legea garatzeko ematen direla, eta ez direla araua kasu jakin bati aplikatzeko administrazio egintza soilak; aldiz, xedapen orokorrak dira, esparru aplikazioan sartzen diren erakunde eta herritar guztientzat lotesleak direnak.

Kasu horretan, erabat aplikagarria da Konstituzio Auzitegiak abenduaren 14ko 185/1995 Epaia bidez ezarritako doktrina, Tasa eta prezio publikoei buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legeari buruzkoa; izan ere, 7/2001 Foru Legea estatuko araubide horretan oinarritzen da. Epai horren bidez, Konstituzio Auzitegiak onartzen du prezio publikoak erregelamenduen bidez aldatzea, betiere hori legean ezarrita badago eta ahalmen hori jaso duen organoak egiten badu, baina inolaz ere ez administrazio egintzen bidez. Aipatu ebazpeneko arauak erregelamendu izaera dute, eta, horrenbestez, Hezkuntza kontseilariak emanak izan beharko lukete, hark baitu lege erregelamenduak emateko ahalmena Hezkuntza Departamentuan, eta ez zuzendari nagusiak.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi dut: Zergatik aipatutako ebazpena Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak eman du, eta ez Hezkuntza kontseilariak?

Iruñean, 2006ko urriaren 31n

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Uharte, Egues eta Esteribarko bigarren hezkuntzako eskariari erantzuteko Hezkuntza Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Uharte, Egues eta Esteribarko bigarren hezkuntzako eskariari erantzuteko Hezkuntza Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Migu-

el José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten.

Gaur egun, Uharteko eta inguruko herrietako bigarren hezkuntzako ikasleak Burlatako ikastetxeetara joaten dira. Kontuan hartuta Uharten, Eguesen eta Esteribarren gertatzen ari den hiri-gintza garapena eta epe ertainean izanen den biztanle kopuruaren igoera nabarmena, zer eginen du Hezkuntza Departamentuak heldu diren urteetan eskualde horretako bigarren hezkuntzako irakaskuntzaren eskaerari erantzuteko? Ba al du asmorik herri horietakoren batean bigarren hezkuntzako beste ikastetxe bat sortzeko?

Iruñean, 2006ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Uharteko arte garaikideko zentroa eraikitzeke eta kudeatzeko finantziaketari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egindako galdera, Uharteko arte garaikideko zentroa eraikitzeke eta kudeatzeko finantziaketari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari

Miguel José Izu Bellosok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun diezaioten.

Uharteko arte garaikideko zentroa eraikitzeke lanak amaitzeaz daude.

Nafarroako Gobernuak eman al du dirurik zentro hori eraikitzeke? Hala bada, zehaztu zenbatekoak, kontzeptuak eta erabilitako prozedura. Nafarroako Gobernuak ba al du zentro hori kudeatzeko dirua emateko asmorik?

Iruñean, 2006ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Belloso

Galdera, Nafarroako Gobernuak bidezainen etxeak izenekoetan egindako jarduketei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak bidezainen etxeak izenekoetan egindako jarduketei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galderak aurkeztu ditu, Economía eta Ogasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan.

Ikuririk herri askotako "bidezainen etxeak" zein egoeratan dauden, eta kontuan hartuta Nafarroako Gobernuaren higiezinaren ondarearen zati direla, hauxe jakin nahi dut:

1.- Legegintzaldi honetan zehar Nafarroako etxe horietan eginiko edozein motako jarduketak. Zein zen etxe horien egoera legegintzaldiaren hasieran eta zein da gaur egungo egoera? (nor-bait bizi da, hutsik daude, alokatuta daude, prozesu judizialen menpe, erortzeko zorian, konpontzen, salgai eta abar)

2.- Departamentuak aurreikusi al du ondare horrekiko jarduketarik? Hala bada, zehaztu jarduketa horien iraupena, plangintza eta helburuak.

3.- Udal, partikular, talde, elkarte edo besteren batek eskatu al du etxe horiek uzteko edo eskualdatzeko? Zehaztu eskaera horien helburua eta Ekonomia Departamentuaren edo Herrilan Departamentuaren, edo, finean, Nafarroako Gobernuaren erantzun arrazoitua.

4.- Zenbateko dirusarrerak sortzen dituzte higiezin horiek? Zehaztu udalerrika; halaber, adierazi zenbateko gastua eragiten dion ondare horrek diru publikoen kutxari eta zehaztu gastua kontzeptuen arabera.

Iruñean, 2006ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	